



Idiazabalgo Udala

OHIKO UDALBATZARRA

2020ko urriaren 15ean

LEKUA: Udaletxeko Batzar Areto Nagusia

LEHENDAKARIA: Iñaki Alberdi Iparragirre

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Aloña Barandiaran Munduate

Iñaki Arriaran Munduate

Eunate Elio Cemborain

Aritz Ugarte Munduate

Ioana Prados Alustiza

Ioritz Imaz Baztarrika

Andoni Gomez Aldanondo

Igor Ariztimuño Iparragirre

Iker Zabaleta Urcelai

EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIA:

Aitzol mendizabal Malkorra

IDAZKARIA: Leire Ucin Soraluze

DEIALDIA: Lehenengoa.

ORDUA: Hasiera: 18:30etan

GAI ZERRENDA

1.Aurreko akta onartzea, hala badagokio.

Idazkariak hartzen du hitza: komentatzen du akats batzuk daudela aurreko aktan: 5. puntuan, aldeko botoa eman zutenen zinegotzien artean Igor Ariztimuño Iparragirre (Izal Bai) jartzen du, Aloña Barandiaranen (Eh-Bildu) ordeaz. Abstenitu zirenen artean berriz, Igor Ariztimuño sartu behar da. Ondorioz, berdinketa dagoenez, Alkatearen kalitatezko botua dela eta, 5. Puntu hori onartzen da.

6. puntuan berdina gertatzen da, Igor Ariztimuño gehitu behar da abstentzioetan eta aldeko botuetaik kendu behar da, eta Aloña Barandiaranen botua gehitu.



Idiazabalgo Udala

Azkenik, galdera eskaeratan, jartzen du Ampo S.coop enpresaren ondoan dagoen eraikinaren harira, aktan esaten da legeztatzeke prozesuan dagoela. Jarri beharko luke, ikerketa fasean dagoela eta dagokion espedienteak irekiko zaiola. Idazkariak esaten du egingo dituela aldaketa horiek guztiak.

Bozkatzen da eta AHO BATEZ onartzen da aurreko akta.

2.Musika eskola zerbitzuaren kontratazioaren harira, Ordiziako Musika Eskolari kontratua behin betiko esleitzea, hala badagokio.

Idazkariak azaltzen du aurreko Plenoan behin-behineko esleipena onartu zela, eta aurkeztu dituztela beharrezko dokumentuak eta behin betiko bermea.

Bozkatzen da eta AHO BATEZ onartzen da Ordiziako Musika Eskolari behin betiko kontratua esleitzea.

3.Euskara, Kultura eta Kultur Ondarea Batzordeko lehendakariaren proposamena, Musika eskola zerbitzua finantzatzeko 2019-2020 udal ekarpenen likidazioa eta 2020-2021 udal ekarpenen hasierako aurreikuspena onartzea, hala badagokio.

Hauxe da kultur dinamizatzaileak egindako txostena:

Kultura, Euskara eta Kultur Ondarea Batzordeko Lehendakariaren proposamena, Musika eskola zerbitzua finantzatzeko 2019-2020 udal ekarpenen likidazioa eta 2020-2021 udal ekarpenen hasierako aurreikuspena onartzea.

IKUSIRIK

Kultur teknikari dinamizatzaileak eta Idazkari Kontu hartzaileak egindako txostena.

2018-2019ko udal ekarpenen likidazioaren txostena.

AURREKARIAK

Itsasondoko eta Zaldibiako Udal Batzarrek (2018ko martxoaren 27an, hurrenez hurren, egindako bilkuretan) eta Legorreta eta Idiazabalgo Udal Batzarrek (2018ko martxoaren 28an, hurrenez hurren, egindako bilkuretan) onartu dute Idiazabal, Itsasondo, Legorreta eta Zaldibiako udalen arteko lankidetzaren hitzarmena, musika eskola zerbitzua kontratatzeke, kudeatzeko eta finantzatzeko.

Lankidetzaren hitzarmena argitaratu da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2018ko apirilaren 12an (70. zk.ian).

Lankidetzaren hitzarmenaren 6. klausulak arautzen du "Ekarpenen kalkulua eta ordainketa", eta honako hau xedatzen du:

«Udalek finantzatzeko dute zerbitzua udal bakoitzak egiten duen diru-ekarpenekin, klausula honetan xedatutakoaren arabera.

Bestalde, zerbitzu hau finantzatu ahal izateko, udal bakoitzak prezio bat ezarriko die erabiltzaileei, dagokion prezio publikoaren ordenantzen bitartez. Prezioaren kopurua era



Idiazabalgo Udala

adostuan finkatuko dute hi tza rmen hau izenpetzen duten udalek, eta ezberdina izan ahalko da udal bakoitzaren sustapen politikaren arabera.

Zerbitzuaren finantzazoiari buruz, honako hau adostu dute udalek: Musika eskolaren zerbitzua kontratatu duen udalak, zerbitzua eskaintzeagatik hileroko ordainagiria jaso bezain laster, gainontzeko udalei igorriko die beraien zerbitzu teknikoek informa dezaten, horretarako hamabost eguneko epea izango dutelarik. Ondoren, hileroko ordainagiria ordainduko du udal arduradunak, betiere sektore publikoko kontratazioa arautzen duen legeriak xedaturiko epea kontuan harturik.

Udalen ekarpenak honako era honetan gauzatuko dira: Udal arduradunak hiru hilabetetik behin dagokion kitapena kalkulatu eta helaraziko dio udal bakoitzari.

Kitapena kalkulatzeko, kontutan hartuko dira zerbitzuarengatik egindako hileko ordainketak, udalerrri bakoitzeko erabiltzaile kopuruaren arabera banatuko direlarik.

Era honetan, zerbitzuaren kostua zatituko da udal guztienartean, bakoitzaren erabiltzaile kopuruaren eta zerbitzu motaren arabera.

Udalek, zerbitzu teknikoek emandako txostenak aintzat hartuta, eta, bere kasuan, Jarraipen Batzordean elkartu ondoren, dagokien diru ekarpena ordainduko dute 30 eguneko epean ordainagiria udaletxeko erregistroan aurkeztu zenbatzen hasita.

Epe hori gaindindituz gero, Idiazabalgo udalak eskatu ahal izango ditu berandu tze-interesak kobra tze-kosteei dagokien kalte-ordaina, abenduaren 29ko 3/2004 Legearen kitapenenetan araututakoaren arabera.

Udalen atzerapena sei hilabete baino gehiagokoa bada, Idiazabalgo udalak, orobat, hitzarmena desegiteko eta horren ondorioz sortzen diren kalteak jasotzeko eskubidea izango du»

PROPOSAMENA

1) 2019-2020 ikasturteko ekarpenen likidazioa onartzea:

| | Hitzarmena | Idiazabal (%43,091) | Itsasondo (%9,77) | Zaldibia (%22,036) | Legorreta (%25,103) |
|---|-------------------|--------------------------------|------------------------------|-------------------------------|--------------------------------|
| <i>Hasierako aurreikuspena</i> | 250.064,00 € | 107.755,08 € | 24.431,25 € | 55.104,10 € | 62.773,57 € |
| <i>Eusko Jaurjaritzaren diru laguntza</i> | 23.363,00 € | 10.067,35 € | 2.282,57 € | 5.148,27 € | 5.864,81 € |
| <i>Likidatutako gastua</i> | 226.701,00 € | 97.687,73 € | 22.148,69 € | 49.955,83 € | 56.908,75 € |
| | | | | | |
| <i>Udal elkarpenak</i> | 229.223,69 € | 97.687,73 € | 19.567,96 € | 50.400,00 € | 61.568,00 € |
| | | | | | |
| <i>Aldea</i> | | 0,00 € | 2.580,73 € | -444,17 € | -4.659,25 € |

2) 2020-2021 ikasturteko ekarpenen aurreikuspena onartzea

| 16/09/2020 | Hitzarmena | Idiazabal (%51) | Itsasondo (%10) | Zaldibia (%18) | Legorreta (%21) |
|-------------------|-------------------|----------------------------|----------------------------|---------------------------|----------------------------|
|-------------------|-------------------|----------------------------|----------------------------|---------------------------|----------------------------|



Idiazabalgo Udala

| | | | | | |
|---------------------------------------|--------------|--------------|-------------|-------------|-------------|
| Urteko hasierako aurreikuspena | 246.045,35 € | 126.959,40 € | 22.414,73 € | 43.500,82 € | 53.170,40 € |
| 10 hilabetetako aurreikuspena | 24.604,54 € | 12.695,94 € | 2.241,47 € | 4.350,08 € | 5.317,04 € |

* Ekarpenak hilero egingo dira.

** Ekaineko ordainketan egingo da erregularizazioa, Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza kontuan hartuta.

3) 2018-2019 ekarpenen likidazioaren ordainketa

| | Hitzarmena | Idiazabal (%35,24) | Itsasondo (%9,11) | Zaldibia (%27,01) | Legorreta (%28,64) |
|---|-------------------|---------------------------|--------------------------|--------------------------|---------------------------|
| <i>Hasierako aurreikuspena</i> | 233.000,00 € | 82.109,20 € | 21.226,30 € | 62.933,30 € | 66.731,20 € |
| <i>Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza</i> | 20.888,00 € | 7.360,93 € | 1.902,90 € | 5.641,85 € | 5.982,32 € |
| <i>Likidatutako gastua</i> | 212.112,00 € | 74.748,27 € | 19.323,40 € | 57.291,45 € | 60.748,88 € |
| <i>Udal ekarpenak</i> | | | 16.528,08 € | 72.000,00 € | 64.843,90 € |
| <i>Aldea</i> | | | 2.795,32 € | -14.708,55 € | -4.095,02 € |

Itsasondo eta Legorretarekin likidazioa itxita dago.

Zaldibiri 14 708€ko ordainketa egingo zaio.

Alkateak azaltzen du 2018ko likidazioa pendiente dagoela zaldibiri ingresatzeko, aurreko idazkariak esaten zuelako bi urtetan egiteko, baina garbiago da urtekoa likidatzea.

Bestalde esaten du orain ekarpenak egiteko modua aldatu egingo dela; Zenbateko finko bat ingresatuko diote gainontzeko Udalek Idiazabalgo udalari, eta kurtso bukaeran, egingo da likidazioa.

Ondorengo taulan daude aurreikuspenak:

| CONCEPTO | ESTIMADOS 2020/21 | IDIAZABAL | ITSASONDO | LEGORRETA | ZALDIBIA |
|-------------------------------------|-------------------|-----------|-----------|-----------|----------|
| HORAS LECTIVAS | 3.337,00 | 1.722,00 | 304,00 | 721,00 | 590,00 |
| HORAS NO LECTIVAS (Lectivas * 0,28) | 934,36 | 482,16 | 85,12 | 201,88 | 165,20 |



Idiazabalgo Udala

| | | | | | |
|---|-------------------|-------------------|------------------|------------------|------------------|
| HORAS NO PRESENCIALES (Lectivas * 2,5%) | 83,43 | 43,05 | 7,60 | 18,03 | 14,75 |
| HORAS TOTALES | 4.354,79 | 2.247,21 | 396,72 | 940,91 | 769,95 |
| TOTAL IMPORTE | 246.045,35 | 126.967,37 | 22.414,68 | 53.161,13 | 43.502,18 |
| % SOBRE "TOTAL IMPORTE" | 100,00% | 51,60% | 9,11% | 21,61% | 17,68% |
| PAGO MENSUAL, EN 10 MESES | 24.604,54 | 12.696,74 | 2.241,47 | 5.316,11 | 4.350,22 |

loritz Imazek galdetzen du ea kontratu hau eginda Ordiziako Musika Eskolarekin ze konpromezu klase hartzen den, hau da, klase orduak gutxituz gero, hala eta guztiz ere kontratuaren zenbatekoa mantendu egiten al den. Idazkariak erantzuten dio pleguetan begiratu behar dela hori . Aloña Munduatek esaten du Musika eskolako erabiltzaileak kurtsu guztirako konpromezua hartzen dutela, ikastaroan izena ematen dutenean.

Alkateak esaten du aurreikuspenak ekainean egiten direla, erabiltzaileek izena ematen duenean, gero gertatu ahal dela, irailean kurtsuak hasi eta batzuk uztea, hori horrela, desfaseren bat egongo zela; baina hurrengo kurtsorako maisu kopurua jeitsiko zela. Hala ere, esaten du pleguetan begiratu behar dela hori guztia nola dagoen lotuta.

Horrez gain, Alkateak azaltzen du hemendik Aurrera beste udalek hilero egingo dituztela ekarpenak, eta uztailean egingo dela zuriketa, Eusko Jaurlaritzako dirulaguntza kontutan hartuta

Bozkutzen dute eta AHO BATEZ onartzen da Euskara, Kultura eta Kultur Ondarea Batzordeko lehendakariaren proposamena, Musika eskola zerbitzua finantzatzeko 2019-2020 udal ekarpenen likidazioa eta 2020-2021 udal ekarpenen hasierako aurreikuspena.

4. Idiazabalgo Bake Epaitegirako Bake Epailea eta Ordezkoa hautatzea.

Alkateak esplikatzen du bi hautagai aurkeztu direla: Mattin Intxausti Arrizabalaga, eta Montse Delgado Aguirre.

Hauek dira Bake Epaile aurkezteko baldintzak:



Idiazabalgo Udala

- Espainiar herritartasuna izatea eta adinez nagusia izatea.
- Eginkizun judizialerako ezgaitua ez izatea, ez fisikoki, ez psikikoki.
- Eskubide zibil guztien jabe izatea.
- Maltzurkeriazko delituengatik kondenatua ez egotea, birgaitasuna lortzen ez den bitartean
- Maltzurkeriazko delituengatik auzipetu edo errudun ez izatea, askapena edo largespena lortzen ez den bitartean.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2020ko irailaren 4ean argitarau zen iragarkia, Bake Epaile izateko interesatuak bere burua aurkez zezaten.

Bi hautagai horiek erantzukizunpeko adierazpena sinatu dute, non zin egiten duten baldintza guztiak betetzen dituztela.

Bestalde, merituak puntuatzen dute:

1. Gradu edo Lizentziatura izatea: 5 puntu
2. Justizia administrazioan egindako lanak: 5 puntu

Mattin Intxausti Arrizabalagak Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua aurkeztu du.

Hortaz, honako hau da proposamena:

Bake Epaile izendatzea proposatzea Justiziarri: Mattin Intxausti Arrizabalaga
Ordezko bake Epaile izendatzea proposatzea Justiziarri: Montse Delgado Agirre.

Ioritz Imazek komentatzen du Goierriko komunikabide abtean elkarrizketa bate egin ziotela, non Mattin Intxaustik esaten zuen Ikasle Abertzaleak-eko partaide zela; ez dakiela gaur egun oraindik kide al den, hori konprobatu egin beharko litzatekeela, ze bateraezintasun bat suposatuko luke bake Epaile izendapenarekin.

Idazkariak erantzuten dio, Osoko Bilkuraren eskumena dela Justiziarri bake Epaile izateko hautagaia proposatzea; gero, bere esku gelditzen dela baldintza guztiak betetzen dituen edo ez egiaztatzea.

Iñaki Arriaranek komentatzen du zinpeko aitortpena egin duela eta pentsatzen duela baldintzak beteko dituela.

Bestalde, Iñaki Arriaranek komentatzen du ikusi beharko litzatekeela ze izaera juridiko duen Ikasle Abertzaleak, ikusteko ea bateragarria den edo ez Bake Epaile figurarekin.

Alkateak esaten du jakin beharko litzatekeela ea udalaren betebeharra den datu horiek guztiak egiaztatzea edo justiziak egin behar duen. Idazkarian esaten du telefonoz deituko dutela justizia sailera.

Bozkatzten dute, eta aho batez onartzen da 4. Puntua.

5. Galdera eskaerak

Ioritzek galdetzen du zenbat langile dauden udaletxean, langile berri bat hasi dela eta... Alkateak erantzuten dio langile berri hori Garbiñen posturako eta Imanol aitatasun bajaran zegoelako, ekarri zela. Orain Garbiñek buelatzeko eskatu du, eta azaroak 6an buelatztea ekatu du.

Ioritzek galdetzen du zenbat dauden bulegoan. Alkateak erantzuten dio Maier, Marian, Eli, Alazne, Edurne, Nekane, Leire eta Imanol daudela. Ioritzek galdetzen du turismotik **aparte** beste zerbait egiten al duen, Alkateak erantzuten dio komunikazio arloa berak eramaten duela.



Idiazabalgo Udala

Andoni Aldanondok komentatzen du turismo arloko langileari deitu ziola COVID-aren eraginak leuntzeko dirulaguntzen ebazpena ea egin al zuen, eta erantzun ziola beste zerbait egin behar zuela lehenago; harrigarria iruditzen zaie hainbeste denbora pasatzea dirulaguntza horiek ebazpenik gabe. Ioritzek esaten du lehentasunak ezarri behar direla Iñaki Arriaranek esaten du bilera bat egin behar dutela bi alderdiek lanpostu horri buruz zenbait gauza adosteko. Andonik esaten du batzorde batekin egin behar dela lehenbailehen dirulaguntza horien ebazpenak onartzeko.

Ioritz Imazek galdetzen du ea Oinezkoen Egunak-en ebaluazioa bukatuta al dagoen. Iñaki Arriaranek komentatzen du 230 pertsoneri inkesta egin zaiela, eta parte hartze foro bat ere bai; honen txostena hurrengo astean edudkiko dute. Iritzi tarte bat urtzi zan eta ekarpen ugari jaso dituzte.

Alkateak komentatzen du negua datorrela, eta ostalaritzako arduradunekin bilera egin behar dela nola antolatu behar dituzten terrazak, aforoak etb.. ahal den neurrian, jendea tabernatik kanpo mantentzeko.

Komentatzen da Pilar Eneako erabilera anitzeko zentroko zerbitzu osagarrien araudia eta eguneko zentroa arautzeko erregelamendua onartu behar direla eta Batzordea egin behar dela. Zinegotziek komentatzen dute jada landuta dutela arautegia eta ez duela merezi Batzorde bat egitea horretarako bakarrik. Horren harira, idazkariak komentatzen du posible dela Batzordetik onartu gabe Osoko Bilkurara eramatea Gaia, baina lehenik eta behin puntua urgentziatzkoa den edo ez bozkatu behar dela Bilkuran bertan. Hori horrela, erabakitzen dute zuzenean bi puntu hauek Osoko Bilkuran onartzea.

Bilera bukatutzat eman da arratsaldeko zazpiak eta bi minututan, eta akta hau egin dut bertan esandakoa jasota gera dadin, Alkatearen oniritziarekin eta efektuak izan ditzan

Idiazabalen, 2020ko urriaren 15ean.

Alkatea

Iñaki Alberdi Iparragirre

Idazkari-kontuhartzailea

Leire Ucin Soraluze